# DROGETEN ITURRI

Ermua eta Mallabiko aldizkaria. 256. zenbakia. 2017ko maiatza



## Jokin Gómez, hip-hop nortasuna


IRAZABAL
clínica dental
Ainhoa Zulueta
Doktorea
Odontologian Lizentziatua.
Euskal Herriko Unibertsitatea.
Unibertsitate Adtua Aho Kirurgian, Periodontzian, inplantologian.
Leongo Unibertsitatea.
Diplomatua Aho Kirurgian.
Bartzelonako Unibertsitatea.
Hortz-Estetikan Diplomatua.
Madrilgo Unibertsitate Konplutentsea.
Hortz-Estetikan Diplomatua.
Autran Institutoa. Bartzelona.
Etengabeko Formakuntza.
New York-eko Unibertsitatea.
Oklusioan Graduondoa.
Aníbal Alonso Doktorea.
Familiaren Osasuna
Zure familiaren ahoaren osasunaz arduratzen garelako
Gutaz fidatu eta jarrai iezaguzu
Facebooken: Clínica Dental Irazabal Eta twitteren: @ClinicaIrazabal
FINANTZIAZIO BEREZIA. Abantaila ekonomiko handiak eta finantziazio ezin hobeak. GALDETU
IRAZABAL clínica dental
Julián Etxeberria, Nº 12 - 1º - 20600 EIBAR
Tel.: 943 20 85 52 - www.clinicairazabal.com
Astelehenetik ostiralera:
8:00etatik 22:00etara
Zapatuetan:
10:00etatik 14:00etara


Ugaro
asesores
• AHOLKULARITZA FISKALA ETA KONTABILITATEA
• LAN AHOLKULARITZA
• AHOLKULARITZA JURIDIKOA
Errenta Renta 16
Maiatzaren 2tik ekainaren 30era
Zure errenta aitorpena guk egin dezakegu
informa zaitez!
-%+X÷
Zubiaurre Kalea, 27 • 48260 ERMUA
tel. 943 17 43 44 • ugaro@ugaro.com
Agente esklusiboak:
Allianz
Seguros

***ARGITARATZAILEA:***

Euskal Birusa
Elkarte Kulturala.

***HELBIDEA:***

Erdikokale zeharbidea 2, 1.
247 posta–kutxa
943 17 93 50 / 688 63 28 76
drogeten@gmail.com
www.euskalbirusa.eus

***ERREDAKZIO TALDEA:***

Alazne Aiestaran,
Amaia Arginzoniz,
Paul Bustindui,
Estibalitz González
eta Dorleta Vidal.

***KOORDINAZIOA ETA MAKETAZIOA:***

Paul Bustindui.

***HIZKUNTZ ARDURADUNA:***

Alazne Aiestaran.

***AZALEKO ARGAZKIA:***

Alberto Gómez..

***LAGUNTZAILEAK:***

Antonio Hernández 'Cuco',
Patxi López,
Valentin Mugarza,
eta Hiart Redondo

***ARGAZKIAK:***

AEK,
Ainitze Antxia,
Amaia Arginzoniz,
Eneritz Arriaga,
Ermuko Gazte Asanblada,
Ander Basaguren,
Paul Bustindui,
Juanma Cano,
EITB,
Alberto Gómez,
Jokin Gómez,
Estibalitz González,
June Hernandez,
Valentin Mugarza,
Hiart Redondo,
eta Oier Retolaza.

***PUBLIZITATEA:***

943 17 93 50 / 688 63 28 76
drogeten@gmail.com

***INPRIMATEGIA:***

Gertu Koop. (Oñati).

***BANAKETA:***

Ainitze Antxia, Amaia
Arrondo eta Olatz Vidal.

***TIRADA:***

2.425 ale.

***ISSN:***

1133–973X.

***LEGE GORDAILUA:***

SS–213/1994.

*Drogetenitturrik ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako iritzien erantzukizunik.*

# Bertoko kantuak

*Herritarron ahotik*

## Gaztetasuna (Entzuteko: www.alboka.es)

Gaztetasuna  eta garbitasuna
dute laguntzat zoriontasuna.
Zuzenak diralako
gure buruko asmoak,
arpegian barria
barruan, berriz,
bihotz alaia
ipintzen digu Jainkoak.
Tran la ra la ra la la tran la ra...

Euzkotarrak gera
bihotz- bihotzetik, maitatzen degula
geure ama Euzkadi.
Jaungoikua eta Lege Zaharra
Gora Euzkadi,  Gora Euzkadi
bizi bedi beti!



# Hilabete honetan...

GURETIK MUNDURA ......4
Ander Basaguren (Mexiko)

ELKARRIZKETA ..............5-7
Jokin Gómez, hip-hop-abeslaria

MALLABIAN ZER? ........8-9
Satxibu aisialdi taldea

EUSKAL BIRUSA ............10
Lanpostu bat betetzeko lan deialdia

MOTZEAN ..................12
Emuko gazte eguna

ERMUAN ZER? ............15
"El oxímoron de la abuela"-ren estreinaldia

BOTEPRONTOAN..........16
Ainitze Antxia

KIROLZALE .................17
June Hernandez, futbol atezaina

IRITZIA ........................18
Ermuko gazteria

ZORION-AGURRAK ......19
Saldu, erosi edo agurtu

ANTZINAKOAK............20
Ermuko eta Mallabiko argazkiak

KALEKO INKESTA .........21
Musika ekitaldiak Betiondora?

EKAINEKO AGENDA ...22

**Ondorengo erakundeek diruz lagundutako aldizkaria:**

AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

MALLABIKO UDALA

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística




# Ander Basaguren

**Orain dela 3 urte eta erdi familiako ezkontza baterako Atlantiar Ozeanoa zeharkatu eta egonaldia luzatu du Mexikon. Osasun zentro batean ari da terapiak eta tailerrak ematen. Mexikon, kultura eta historia izugarria duen herrialde berri bat aurkitu du, pertsonak oso atseginak direla goraipatuz.**

***- Duela zenbat urte joan zinen Ermutik? Zer dela-eta?***

2013ko irailean etorri nintzen. Familia daukat hemen, orain dela urte asko nire birraitona etorri zen. Zesta puntan jokatzen zuen, eta bertan geratu zen bizitzen. Familia kide bat ezkontzen zen eta ospakizunera etorri eta hiru hilabete geratu nintzen beraiekin bizitzen.

***- Erabaki erraza izan zen?***

Bai, hasieran ez nuen uste hainbeste denbora egongo nintzenik hemen. Gainera lan eskaintza ona neukan eta probatzearren… Aukera polita zen beste kultura eta herri bat ezagutzeko. Alde txarra familia eta lagunak lagatzea, eta Euskal Herriko belar eta itsaso usain gozoa.

***- Mexikon, zer uste zenuen topatuko zenuela eta nola imajinatzen zenuen hura joan aurretik?***

Hegaldia neukan DFra eta 9 ordutan Acapulcora. Etorri aurretik Interneten informazioa topatu nuen eta ikusi nuen lehenengo argazkia "Decapitados por narco" izan zen. Ez nintzen ausartu bederatzi ordu horietan aireportutik irteten.

***- Eta zer topatu duzu? Espero zenuena?***

Ba konturatzen zara arazoak badaudela, hilketak eta bahiketak egunero daude, ez hirian bertan, herrialde osoan baizik. Baina eguneroko bizitzan ez dira gauza larriak gertatzen, beste edozein hiritan bezala. Benetan oso herri aberatsa da, kultura eta historia aldetik; erderaz ez ezik beste ia 70 hizkuntza indigena daude eta bakoitzak bere bitxikeriak dauzka.

***- Zerk harritu zaitu gehien?***

Merkatuetako postuek harritu ninduten; fruta eta barazki ugari, kolore eta tamainak, ikaragarria. Lur oso aberatsa daukate eta fruituak orokorrean gozoak eta merkeak dira. Mexikarrei batzuetan kosta egiten zaie zuzenak izatea, gauzak aurpegira esatea. Bestalde, hasieran batez ere, harreman kontuetan, gaizki ulertuak egon daitezke, baina orokorrean oso atseginak dira.

***- Ondo moldatzen zara hizkuntzarekin? Bertako hizkuntza propioek harritu zaituzte?***

Bai, ez dago arazorik. Lagun batek Nahuatl hizkuntza daki, Aztekek erabiltzen zutena, eta harrigarria da hizkuntzan bertan, lurrarekin zeukaten konexioa.

***- Nolakoa da zure egun bat?***

Osasun zentro batean nabil terapiak eta tailerrak ematen; medikuntza alternatiboarekin. Beste batzuetan kanpora ere joaten naiz lanera Meridara edo Aguascalientesera. Arratsaldean kirol apur bat edo salsa klaseetara joaten naiz; latino kutsu hori hartzeko. Egia esan, bizimodu azkarra izaten da hemen. Distantziak oso handiak dira.

***- Noiz egon zara Ermuan azken aldiz?***

2015ko Gabonetan egon nintzen eta orain ekainean 15 egunetarako etxera bueltan noa.

***- Ermura bizitzera bueltatuko zarela uste duzu?***

Bai, ez dut neure burua hemen ikusten betirako.














Jokin Gómez, hip-hop-abeslaria:

# “Nik idatzitako abestiak maketa batean jarri eta diska bat kaleratzea amets bat izan da”

**Txikitatik erlazio estua izan du hip-hop musikarekin. Rapa idazten urte batzuk eman ondoren, maketa bat kaleratzeko apustua egin du aurten. Kenopsia lanaren abestietan, nostalgia, gogoeta, amodioa eta bestelako gaiak jorratzen dira. Garai hauetan disko fisiko bat kaleratzeko dauden zailtasunak alde batera utzi eta betiko ametsa gauzatu du. “Jendeak norbera ezagutzean dago gakoa”, dio Jokinek. Bere esanetan, Internet tresna oso baliagarria bihurtu da abestiak besteekin elkarbanatzeko. Zuzeneko emanaldiak ere eman izan ditu, eta momentuan Kenopsia lanean zentratuta dagoen arren, etorkizunean hip-hop proiektu berriak ditu buruan.**

***- Noiz izan zen zure lehen hurbilketa hip-hop eta bereziki rap musikara?***

Zazpi urte izango nituen. Ni gaztea nintzela, nire anaia Mikelek rapa entzuten zuela gogoratzen dut, eta horregatik hasi nintzen rap musika kontsumitzen. Hasieratik asko gustatu zitzaidan generoa izan da.

***- Entzuteaz gain, noiz hasi zinen zure lehen rap piezak eta abestiak egiten zure kontura?***

Hamaika-hamabi urte nituela hasi nintzen idazten, baina hurrengo urteetan geldiune bat izan nuen. Benetan abestiak egiten hasi nintzen urtea 2010a izan zen. Geroztik etengabe ibili izan naiz rap abestiak ekoizten.

***- Nolakoa da abesti bat sortzearen prozesua: erritmoa aurrenik eta letra ondoren, edo letra eta gero erritmoa?***

Idaztea da azkenean funtsezkoa. Erritmo bat badaukat buruan sartuta horri egokitzen zaizkion hizkiak bilatzean datza. Hori idatzi egiten dut, eta azkeneko pausoa erritmo eta letra gai horri egokitzen zaion base bat aurkitzea da. Azkenean estilo ugari ditu hip-hopak eta horrek aukera asko zabaltzen dizkio sortzaileari. Beste batzuetan ere, gustuko base bat entzun, eta bertan egoki joango liratekeen errima esaldiak moldatzen ditut. Modu askotara sortzeko aukera ematen duen generoa da.

***- Hip-hoparen barruan, zein azpigenerotan kokatuko zenuke zure estiloa?***

Ez dut uste azpigenero batean kokatuko nukeenik. Agian, 90. hamarkadako rapera gerturatzen da nire estiloa, bonbo eta kutxa indartsuak dituzten baseak, eta horrez gain, beste batzuk melodikoagoak direnak, piano soinuekin etab.

## "Hip-hopak estilo ugari ditu eta artistari aukera asko zabaltzen dizkio abestiak egiteko garaian"




***- Zeintzuk izan dira rap munduan izan dituzun erreferenteak eta zure musikan eragina izan dutenak?***

Zaragozako rapa nagusiki: Violadores del Verso, Rapsusklei, Rafael Lechowski. Tote King ere aipatu beharko nuke. Bereziki Espainiako 90. hamarkada bukaerako eta XX. mende hasierako taldeak. Era berean, Amerikako Estatu Batuetako Tupac Shakur esango nuke, rap generoaren erreferentea baita.

***- Lantzen dituzun gaiei dagokionez, zeri buruz mintzo dira zure abestiak?***

Gai ugari ukitzen ditut. Adibidez, egun txar bat badut, nire sentimenduak islatzen ditut abestietan, gizartearen aurkako jarrera erakutsiz esaterako. Baditut beste batzuk non maitasuna jorratzen dudan. Azkenean bizitzako pasarteak islatzen ditut nire abestietan. Zer bizi izan dudan eta nola bizi izan ditudan horiek.

***- Hainbat urte zure konposizioak egiten pasa ondoren, nola otu zitzaizun maketa bat argitaratzea?***

Orain dela lau urte, nire kabuz maketa bat egin nuen etxean, gerora Interneten jarrinuena. Oraingoa baina, Eibarko Legarre estudioetako Walter Tuzzeok ekoiztu ZUEN. Emaitzarekin oso pozik gelditu nintzen, eta disko formatuan kaleratzeko apustua egin nuen.

***- Honela sortu zenuen Kenopsia diskoa. Nondik dator izena?***

John Koeningenek asmatutako hitz bat da Kenopsia. Sentimendu eta ideia asko ezin dira hitz batekin definitu. Kenopsiak aurretik bizia izan duen eta orain hutsik dagoen leku edo egoera bat definitzen du. Azkenean bizitzaren metafora gisa jokatzen duen hitza da, pertsonak galtzen goazen heinean, hustuago sentitzen garelako.

***- Hemeretzi abestik osatzen dute diskoa. Zer aurki daiteke bertan?***

Erritmo ezberdinetako abestiak tartekatu ditut. Azkenean raparen esentzia adierazten dutenak daude, melankolikoagoak ere, eta gogoetara eramaten dutenak.

***- Gaur egun ez da gauza xamurra diskoaren aldeko apustua egitea?***

Formatu fisikoan kaleratzeak duen zailtasunak baino nori saltzean dago koska. Jendeak ezagutu behar zaitu, eta ez da erraza difusio lan hori.

***- Egoera gogorra, beraz.***

Beno, gero eta jende gehiagok ezagutzen nau eta




ZERMIK
SISTEMA ELEKTRONIKOEN GARAPENA
DESARROLLO DE SISTEMAS ELECTRONICOS
ELECTRONIC SYSTEM DEVELOPMENT



ZERMIK INGENIERIA S.L. mikrokontrolatzaile bidezko diseinu elektronikoak garatzen espezializatua dagoen ingeniaritza-enpresa da. Horrez gain, LabVIEW-ren bitartez sistema industrialen kontrola eta monitorizazioa bideratzeko gaitasuna ere badu.

www.zermik.com

Usaetxe plaza 6-8, behea
Arrasate-Mondragon (Gipuzkoa)
Telf: 943 23 10 12

diskak saltzen ari naiz. Baina oso prozesu geldoa da, eta apurka-apurka joan beharra dago.

***- Ez dakitenentzat, non eskuratu daiteke zure disko fisikoa?***

Nirekin kontaktuan jarriz lortu daiteke diskoa, jokingomez.skrap@gmail.com helbidean. Bost euroko prezioa du ale bakoitzak, maketaren grabazio gastuekin parra egiteko intentzioarekin egina baitago. Ez dut rapa interes komertzialarekin ikusten.

***- Era berean, interneten ere entzun daiteke zure maketa…***

Difusiorako oso baliagarria den plataforma da Internet. 90. hamarkadan askoz zailagoa zen norberaren maketa beste jende batekin partekatzea. Orain, aldiz, askoz errazagoa da. Nire Kenopsia maketa youtuben eskegita dago, azken finean zenbat eta jende gehiagorentzat eskuragai egon positiboa da. Nire youtubeko kanala Skrap8a da, baina nire Jokin Gómez izena jarrita ere bilatu daiteke.

***- Kontzertuak ere eman izan dituzu azkenaldian. Nola sentitu zara oholtzaren gainean?***

Egia esan, oso gauza polita da zuzenean abesteko parada izatea, jendearen berotasuna sentitzen baita. Rap emanaldi bat eskaini nahi duen taberna edo ekitaldietan parte hartzeko prest nago beti. Musikariak kontzertuetan sentitzen gara erosoen.

## “Zuzenean abesteko parada izatea polita da, jendearen berotasuna sentitzen baita”

***- Etorkizunean konposatzen jarraituko duzu?***

Azkenean Kenopsia nahiko proiektu berria da, eta momentuz horren difusioan eta zuzenekoetan ari naiz. Dena dela, beti idazten dut, edozein egunetan inspiratu zaitzakeen edozer gordeta utzi behar baita. Abesti berriak egiten ditut denbora librean, etorkizunean proiektu berriak osatzen jarraitzeko, eta errepertorio gehiago izateko.

***- Beste artista batzuekin kolaborazioak egitea pentsatu duzu?***

Bai, hip-hopa beste artista batzuei abestietan laguntzeko aukera ematen duen generoa da. Gertuko artistekin zer edo zer egitea gustatuko litzaidake, baina momentuz ez dago ezer adostuta. Bestalde, nire abestiei kutsu instrumentala gehitu liezaioketen artistekin ere zer edo zer egitea gustatuko litzaidake. Rapak soinu aukera ugari eskaintzen ditu eta bestelako generoekin fusio politak lortzen dira. Proiektu berri asko ditut buruan, baina ez daukat presa handirik. Behar duten heinean iritsiko dira gauza horiek.

Paul Bustindui




AMAIA
HARATEGIA

Bertoko Okelak
Probaleku 5
Tfnoa. 943 17 05 84
Ermua

Hamburguesería
TITANIC

Pintxo dastaketa poteoan
Kantabria 2 • Tlf: 17 67 83

KARABIXA

KARABIXA KAFETEGIA
Egunero 8:30etik aurrera zabalik

NEREA IÑIGUEZ
HORTZ KLINIKA

San Inazio 4 - Ermua
943 030 512 / niklinika@gmail.com

MUGA
Kirolak

San Pelaio 4A behea
Telefonoa: 17 64 77
ERMUA

# Satxibu taldeko arduradunak: “Proposamen berriekin gatoz”

**Satxibu aisialdi taldearen zuzendaritza hartu berri dute Ibon Txurruka eta Ioritz Gisasola mallabitarrek, eta aurtengo udalekuetarako proposamen berriez gain, urtean zehar egiten diren ludoteken kudeaketa egin nahi dute elkartetik. Euskararen aldeko apustua berretsi eta Mallabiko haurrei kalitatezko udalekuak eskaintzeko prest datoz.**



***-Noiztik zabiltzate elkartean?***

Ane eta Xabat ibili izan dira urteetan. Horiek utzita, inork hartu ezean elkartea bertan behera geldituko zen eta horrek ekarriko luke kanpoko kudeatzaile batek hartu behar izatea. Orduan guk pentsatu genuen, kanpoko batek hartu baino lehen guk egin genezakeela. Horregatik aurten hasi gara.

***-Garrantzitsua da Mallabiko gazteak herriko elkarteetara hurbiltzea?***

Noski, azkenean guk herriko funtzionamendua ezagutzen dugu, eta urtean zehar antolatzen diren ekitaldiei begira positiboa da hori. Bertakoek egitea.

***-Zenbat lagun zarete orain Satxibun?***

Ibon eta biok gabiltza orain kudeaketa kontuekin, nahiz eta nire arreba Maiderrek ere laguntzen digun bertan.

***-2000. urtean sortua, ze ibilbide izan du elkarteak?***

Betidanik udalekuak antolatu ditu Satxibuk. Hamabostaldi bat urtero osatu, eta euskarazko udalekuak eskaini ditu urteetan elkarteak. Horrez gain, urtean zehar hilean behin egiten den ludoteka ere kudeatu izan du, nahiz eta orain Berbaro elkartea arduratzen den horretaz. Etorkizunean hori berreskuratu nahi dugu Satxibun.

***-Zeintzuk dira elkartearen helburuak?***

Euskara sustatzea eta haurrentzat herrian antolaturiko ekitaldietan laguntzea.

***-Zein ekintza antolatzen dituzue urtean zehar?***

Berez udalekuak dira gure esparru nagusia, baina beste askotan ere parte hartzen dugu. AEKrekin batera Gurasolagunen lagundu genuen, Korrikaren egunean joko batzuk prestatu genituen… Azkenean euskara sustatzearekin loturiko herriko ekitaldietan parte hartzen saiatzen gara. Irailetik aurrera ludoteka hartzea espero dugu.

***-Aurreko urtean 70 ume batu zenituzten udalekuetan. Aurtengoetan langa hori gainditzeko asmorik?***

Zifra bera baino, udalekuen kalitatea hobetu nahi dugu. Umeak azkenean adinaren arabera gehiago edo gutxiago izan ahal dira. Gure helburua baina, horiek ondo pasatzea da, kalitatezko udaleku batzuk eskainiz.

***-Zeintzuk dira gazteei gehien gustatzen zaizkien ekintzak?***

Igerilekuak eta irteerak bereziki. Adinaren arabera, gau-

mari asun
LORADENDA
Diputazioa 9 - ERMUA - Tel. 943 174379

ORBE
TOLDOS Y PERSIANAS
- Toldoak
- Ostalaritzarako muntaiak
- Pertsianak
- Instalakuntzak eta konponketak
- Motorizazioa
- Manparak
- Segurtasun pertsianak
- Pertsiana dekoratiboak
- Estoreak
- Eltxo-sareak
Tailerra:
Zearreko Buelta 2
943 17 66 34 - 630 01 13 41
48260 Ermua (Bizkaia)
Erakusketa: Karabixa 1
48260 Ermua (Bizkaia)
943 17 98 60
persianasorbe@gmail.com

ARRIETA CORDEVI
Etxetresna elektrikoak, telebistak, musika-ekipoak...
...prezio eta kalitate ezin hobean.
VI. Centenario kalea, 5 - ERMUA

Dejate QUERER
BERRIA ERMUA

oh la lá!
EMAKUMEENTZAKO MODA



Goienkale behea, z/g
48260 ERMUA (Bizkaia)
Telefonoa: 943 53 57 48
Mugikorra: 649 55 99 09
ohlalaermua@gmail.com

# “Udalekuak euskaraz egitea positiboa da, euskaraz aritzera bultzatzen baititugu gazteak”

za ezberdinak gustatu ahal zaizkie, 4 urtetik 12rainoko umeak baitaude bertan.

***-Gazteekin tratu ezberdina sumatu duzue hizkuntzari dagokionez?***

Gure helburuen artean euskara sustatzea dago. Lan handia egin behar dugu hemen, baina ez guk bakarrik, azkenean herri osoa euskalduntzea dugu jomuga. Udalekuak euskara hutsean egitea positiboa da, bertan ere beraien artean euskaraz aritzera bultzatzen baititugu gazteak.

***-Aurtengo udalekuetarako begirale bila zabiltzate?***




Gu biok koordinatzaile modura ibiliko gara, baina bost begirale behar ditugu. Sare sozialen bitartez zabaltzen ari gara deialdia. Herria ezagutzen duten pertsonen bila ari gara bereziki, haurrei ahalik eta traturik hurbilena eskaintzeko.

***-Dagoeneko gurasoek zabalik dute izena emateko epea?***

Ekainaren 9ra arte irekita egongo da apuntatzeko epea.

***-Herriko haurrak eta horien gurasoak animatzeko proposamenik?***

Aurreko urteetako balorazioak kontuan hartu ditugu eta proposamen berri batekin gatoz. Ekintza ezberdinak daude aurten. Hiru astetik laura luzatu dugu eskaintza. Ekaineko azken astea, eta uztaileko aurreneko hiruretan egingo ditugu udalekuak. Goizez izango dira, goizeko 9:30etik eguerdiko 13:00etara. Umeek ondo pasatuko dutelakoan gaude.

Paul Bustindui

## ARETO-FUTBOL TXAPELKETA

Ekainaren 2, 3 eta 4an euskararen aldeko areto-futbol maratoia ospatuko da Mallabian.

Txapeldunak garaikurra eta 600 euro jasoko ditu. Bigarren taldeak garaikurra eta 400 euro, eta hirugarren taldeak garaikurra eta 250 euro. Bestalde, 150 euroko sari berezia egongo da etxeko talde onenarentzat. Horretarako, gutxienez Mallabian jaiotako edo bertan bizi diren 3 jokalari izan behar ditu taldeak, eta gutxienez herriko bi talde egon beharko dira, bestela laugarrenarentzako izango da saria.

Izen-ematea 70 eurokoa izango da, eta gehienez 10 jokalari izango ditu talde bakoitzak. Jokalari guztiek 15 urte baino gehiago izan beharko dituzte. Ekainaren 1era arte irekita egongo da izen-emate epea. Talde guztiek gutxienez bi partidu jokatuko dituzte txapelketan.

## FRONTENIS TXAPELKETA

Ekainaren 10ean, larunbata, Mallabiko frontenis txapelketa jokatuko da herriko frontoian. Izen-ematea 16 eurokoa izango da bikoteko, baina bazkideei prezio erdiko deskontua egingo zaie. Sariei dagokienez, txapeldunak kopa eta 150 euro lortuko ditu, eta txapeldunordeak kopa eta 100 euro.

## TENIS TXAPELKETA

Tenis txapelketa antolatu dute ekainaren 1etik uztailaren 8ra arteko Mallabian. Izen ematea maiatzaren 28ra arte irekita egongo da, eta 14 urtetik gorakoa izan behar da bertan parte hartzeko. Bazkideek 6 euro ordaindu beharko dute eta bazkide ez direnek 12. Gutxienez 2-3 partidu jokatuko ditu partaide bakoitzak.

Hiru txapelketetako kontakturako telefonoa 669 028 718a izango da, eta Mallabia Futbol Taldeak eta Mallabiko Udalak antolaturiko ekintzak dira.

Modas Cande
Candelaria Rueda
Diputación, 12 | 48260 ERMUA Bizkaia
T 665 703 904
modascande@gmail.com

ZK
ZUZENBIDE KONTUAK
Lege eta kontu aholkularitza
Izarra Centre eraikina
Tel: 846080080
Mugikorra: 688885435
zuzenbidekontuak@gmail.com

SEHIGA
PROTECCIÓN LABORAL
LAN BABESERAKO ORNIDURA
Goienkale kalea (Ermua)
Tel: 943 172 454
sehiga.proteccionlaboral@gmail.com

Iberikoetan espezialistak
Mayte
Denda berria
VI Centenario 5 · ERMUA
943 172 412

CAPRI
PIZZERIA
943 03 33 15

# EUSKAL BIRUSEKO LANPOSTU BAT BETETZEKO LAN DEIALDIA

Euskal Birusa Elkartea

Deialdi honen helburua lan postu bat betetzea da, epe laburrean estaliko dena. Jardun erdikoa izango da eta 2018ko abendura artekoa izatea aurreikusten da.
Honako profila bilatzen da:
Hizkuntza sustatzaile-dinamizatzailea: hizkuntza normalkuntzan ezagutza eta eskarmentuduna. Giza-taldeen hizkuntza dinamizazio eta motibazioan eskarmentuduna. Komunikatzaile ona eta IKT-en trebatua. Honako eremuetan hizkuntza normalkuntzako lanetan eskarmentua baloratuko da:

- Lan mundua, administrazioa eta merkataritza
- Aisialdia, kultura eta kirola
- Sentsibilizazioa, mintzapraktika

Lanposturako baloratuko dena:
- Harreman pertsonaletarako eta komunikaziorako gaitasuna izatea.
- Gestiorako gaitasuna.
- Soziolinguistikari buruzko oinarrizko ezagutzak izatea.
- Talde lanerako gaitasuna.
- Euskaltzaleen Mugimendua ezagutzea.
- Pertsona dinamikoa eta autonomoa izatea.
- Erabakiak hartzeko gaitasuna.
- Ofimatika programak eta teknologia berriak erabiltzeko trebetasuna.
- Euskaltzaleen Mugimenduko kide izatea.
- Hizkuntzen ezagutza: gaztelera, frantsesa eta ingelesa.

Kasu guztietan oinarrizko eskakizunak:
- Ermukoa izatea
- Euskara ondo menperatzea.
- Gidatzeko karneta eta autoa izatea.

Curriculumak posta elektronikoz bidali behar dira: euskalbirusa@gmail.com helbidera. Bidaltzeko azken eguna: MAIATZAK 29

# SAN ANDRES EGOITZAKO LAN DEIALDIA

Eibarko San Andrés Egoitzak ondorengo lanpostuetarako lan poltsak eratu beharko ditu. Interesatuak bidali CVa ondorengo helbideetako batera:
-Posta arrunt bidez: Legarre 6. 20600 Eibar.
-Posta elektronikoz:fpsanandres@stl.logicontrol.es

**LANPOSTUA ETA BETEBEHARRAK:**

-**Erizaina:** Erizain unibertsitate titulua eta 1. hizkuntz eskakizun ziurtagiria edo baliokidea.
-**Erizain laguntzailea:** Erizain laguntzaile titulua (Lanbide Heziketa) edo erakunde sozialetan menpekotasun egoeran dauden pertsonei arreta egiteko ikastaroa, elikagaiak manipulatzeko txartela eta 1. hizkuntz eskakizun ziurtagiria edo baliokidea.
-**Garbitzaile/zerbitzaria:** Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza edo baliokidea, elikagaiak manipulatzeko txartela eta 1. hizkuntz eskakizun ziurtagiria edo baliokidea.
-**Jangelako laguntzailea:** Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza edo baliokidea, elikagaiak manipulatzeko txartela eta 1. hizkuntz eskakizun ziurtagiria edo baliokidea.

TXALAPARTA TABERNA
Eta asteburuetan pintxoak, afariak eta bokatak!
- Itsaskabra pudina.
- Txipiroiak.
- Piper beteak: okela edo onddoak.
- Fritoak: urdaiazpikoa edo onddoak.
- Redondo saltsan.
- Sagar tarta.
- Gazta tarta.
- Tortila patata...
Erdikokale 13 (Ermua)
ENKARGUAK 943 030 299

ileapaindegia Silvia peluquería
Asteartetik ostiralera
9:00–12:00 15:00–19:00
Larunbata
8:30–13:00
943 170474
688819336


iesUNIbhi
HEZIKETA ZIKLOEN AURREMATRIKULA
EKAINAREN 5etik 16ra
HEZIKETA ESKAINTZA: A ETA D EREDUAK
-HEZIKETA FISIKOA
-INFORMATIKA
-MARKETING ETA MERKATARITZA
-ADMINISTRAZIOA
PROIEKTUAK
- PRAKTIKAK ATZERRIAN
- HEZIBI - LANBIDE HEZIKETA ALTERNANTZIAN
- IKASKUNTZA ESZENATOKIAK
- OSASUNARENTZAKO PROGRAMA
- ENPRESA BIRTUALA
- UNI ENCOUNTER
- URRATS BAT
ATE IREKIAK: Maiatzaren 27an, 11.00etatik 13:00etara
www.uni.eus
idazkaritza@uni.eus
TEL: 943 20 84 44 / 943 17 62 57
www.facebook.com/iesunibhi
@UniEibarErmua


SUMMER CAMP
5 eta 11 bitarteko umeentzako txango eta ekintzak
gozatu eta ikasi irakasle ingelesekin
ekainaren 26tik uztailaren 25era
ABBIEWHITE
ENGLISH SCHOOL
BISTA EDER 7 BEHEA
605693147

## GORROTXAK JAURTIKO DU AURTENGO PREGOIA



Aurtengo Santixauetako pregoia Aner Gorritxategik jaurtiko du. Ermuko okin honek azkeneko “El Conquistador del Caribe” saioan parte hartu zuen eta Euskal Herriko txoko askotan ezagun egin da.
Datorren uztailaren 24ko arratsaldean, Orbe kardinalaren plazan biltzen diren txaranga guztien aurrean suziria jaurtitzeko ohorea izango du Gorrotxak. Herriko gudari ezagunenak emango die hasiera aurtengo Saintixauei.
Azkenengo jai batzordeak Gorrotxaren izena onartu zuen azken bileran. Proposatutako izenetatik, gehiengoak aukeratutakoa izan zen Aner Gorrotxategi okinarena, alde handiarekin gainera.
Ekainean hurrengo jai batzordea egingo da eta bertan Santixauak iragarriko dituen kartelak hautatuko dira. Irabazlea jai ekimenetan parte hartzen duten elkarte ezberdinetako ordezkariek hautatuko dute.

# Ermuko V. Gazte Eguna ospatuko da datorren maiatzaren 27an




Maiatzaren 27an, Ermuko Gazte Asanbladak V. Gazte Eguna antolatu du. Hainbat ekitaldi burutuko dira goizetik gauera bitartean. Goizeko 12:00etan, jolasek emango diote hasiera gazteen festari. 13:00etan, mintzodromoa egingo da Berbalagunekin batera.
Eguerdiko 14:00etan, bertaratu direnekin harrera eta argazkia egingo dute. 14:30ean herri bazkaria egingo dute (aurretik tiketa eskuratu behar da). Arratsaldeko 17:00etan gazte olinpiadak egingo dira eta 18.30ean poteo girotuaren txanda izango da.
Gaueko 22:00etan hiru rock kontzertu antolatu dituzte. Txapelpunk, Worth it, eta Niña Coyote eta Chico Tornado igoko dira oholtza gainera.

# Mintzodromoa antolatu du Berbalagunek

Berbalagunek antolaturik eta Gazte Egunarekin batera, mintzodromoa egingo da Ermuan maiatzaren 27an.
Mintzodromoak eta Berbalagunek gazteengana hurbildu nahi izan du, eta asmo horrekin Gazte Egunarekin batera antolatu dute.
Ahotan ibiliko diren gaiek, beraz, gazteekin zerikusia izango dute, gazteen problematikak eta interesak jorratuko baitira bertan. Aitzitik, horrek ez du esan nahi gazte ez den jendeak ezin izango duenik parte hartu.
Ohi bezala, euskaraz hitz egiteko prest dagoen oro murgildu ahal izango da jarduera honetan.































enolimp
GARBIKETA ZERBITZUAK
Tel. 618 89 29 60 - 620 13 65 23
E-maila. enolimp@hotmail.com
48620 Ermua (Bizkaia)
Atariak - Bulegoak - Lokal komertzialak - Enpresak
Obra amaiera eta erreformak
www.enolimp.es




DROGETEN ITTURRI
Publizitatea:
943 179350
688 632876
drogeten@gmail.com






## IKASTARO TRINKOA IRAILEAN

Azterketa ofizialak urrian

## MATRIKULA ZABALIK

ekainaren 30era arte

## MAILA GUZTIAK

1. Maila (B1)
2. Maila (B2)
3. Maila (C1)

## DATAK

Irailaren 4tik 29ra
4 ordu egunean

## BEKA SISTEMA

Langabetuek
prezio erdia

# ERMUKO UDAL EUSKALTEGIA

Bulego orduak:
9:00 - 13:00 eta 16:30 - 20:00
Teresa Murga Eraikina - Goienkale z/g, 2. solairua
943170925
euskaltegia@udalermua.net
http://www.ermua.es/pags/euskaltegia

udal euskaltegiak • udal euskaltegiak • udal euskaltegiak

### José Luís González Blancoren "*El oxímoron de la abuela*" obra antzeztu da Ermuan:

# "Urteetan isilarazitako pasarteak kontatzen dira obran"

**Juanma Cano eta Maite Lorenzo antzezleek Jose Luis González Blanco ermuarraren lana interpretatu dute. Memoria historikoaren kutsua duen idazlana maiatzaren 19an estreinatu zen Ermua Antzokian.**



José Luís González Blanco idazle ermuarraren "*El oxímoron de la abuela*" antzezlana estreinatu berri dute. Cruz Noguerak zuzendutako lanean, Maite Lorenzo eta Juanma Cano izan dira antzezleak. Obran, bi antzezleek Munduko Kopako finalean bildu diren bi anaien papera egiten dute. Futboletik haratago doan antzezlana da, funtsean Gerra Zibilean eta gerraostean idazlearen amonaren istorioa islatzen da, oximoron hitzarekin kontrajarritako bi elementuen kontrapuntua eraginez.

Javier historia irakaslea da eta bere arreba Lauraren etxera doa Espainia eta Holandaren arteko 2010eko Munduko Kopako finala ikusteko intentzioarekin. Laura arkitektoa da eta gerraosteko hirien berreraikuntzei buruzko doktorego tesia bukatzen ari da. Partida aurrera doan heinean historiako pasarteak kontatzen dizkiote elkarri, samindura eta tristura dakarten oroitzapenak. Bertan, haien amonaren figura ageri da, errealitate gordinena jasan eta tinko eutsi zion emakume kementsua.

"Antzezlan honetan memoria historikoaz, duintasunaz, doluminaz eta gizatasunaz hitz egiten da.", adierazi du José Luís González Blanco obraren idazleak.

Pasa den udazkenean, González Blancoren testua jaso zuten Maite Lorenzok eta Juanma Canok eta segituan beraien onespena eman zioten. "Lana jaso eta konturatu ginen obra honen mezua helarazteko kanala izan gintezkeela. Beraz, antzezlana aurrera eramateko erabakia hartu genuen", dio Juanma Canok. Jarraian, pertsonaien figura lantzen hasi ziren, testuko elementu batzuk osotuz.

Istorioa antzezle taldeari pasa arren, idazleak estreinaldira arte ez zuen funtzioa eszenifikatuta ikusteko paradarik izan, prozesua antzezleei uzteko erabakia hartu baitzuen. "Juanmak, Maitek eta Cruzek begi onez hartu zuten proiektua, eta ilusio handia egin zidan horrek".

Cruz Noguera zuzendariaren hitzetan, obraren bitartez gizatasunaren balioak goraipatu nahi izan ditu idazleak, historiako pasarte bati foku kritiko eta unibertsala emanez. "Istorio honetan galtzaile izan diren arren, gizatasun osoa erakutsi duten pertsonak islatu nahi dira", gehitu du José Luís Blancok.

"Obra leku gehiagotan antzezteko intentzioa dugu, azken finean mezu garrantzitsua dauka atzean, eta jendeari helaraz behar zaion zerbait da hau", dio Cano antzezleak.

**Produkzio lokala**

Antzezlan honetan ermuarrek eta eibartarrek hartu dute parte. Zuzendari eta antzezleez gain, Natalie Hickey eta Manolo Murillo eibartarrak arduratu dira eszenografiaz eta argitasunaz. "Polita izan zen estreinaldia Ermuan egitea, betidanik antzerkiaren alde apustua egin dugun herria izan garelako", dio José Luís Blancok.

Paul Bustindui

URRETA burdindenda
✖ Etxea ✖ Giltzak
✖ Tresneria ✖ Sarrailagintza
✖ Brikolajea ✖ Kit altzariak
✖ Errailak
Zeharkalea 8 Tel: 943 17 65 61 ERMUA

Egaña
ETXETRESNA ELEKTRIKOEN
SALMENTA ETA KONPONKETA
Diputazioa 7 (Ermua) · 943 17 66 08

# AINITZE ANTXIA

***- Nola gogoratzen duzu zure haurtzaroa?***
Oso aktiboa nintzen, batera eta bestera ibiltzen nintzen.

***-Eta gaztaroa?***
Gauza asko egiteko gogoz, oso pertsona asegabea izan naiz beti.

***- Umetan zer izan nahi zenuen?***
Pirata.

***- Zertan ari zara gaur egun?***
-Gizarte Hezkuntza ikasten ari naiz Bilbon.

***- Zer da lan honetan gehien estimatzen duzuna?***
Haurrekin dagoen hartuemana. Askotan beraiek zuregandik ikasteaz gain, zuk ere asko ikasten duzu beraiengandik, eta hori ederra da.

***- Eta gutxien gustatzen zaizun hori?***
Beharbada, gauza asko errepikatu behar direla, pazientzia askorekin jokatu… Baina alde positibo gehiago daude beti. Esperientziak beti laguntzen du.

***- Aisialdian…***
Kale artean galtzea gustatzen zait, horiek duten giroan murgilduz.

***- Egotelp duzun bidaia?***



**Mallabian jaioa duela 21 urte, Longa Nagusi baserriko alaba gazteena da. Mallabian gaztaroa igaro ostean Bartzelonara joan zen eta gaur egun Bilbon bizi da. Gizarte Hezkuntza ikasten ari da bertan, eta umeei irakasteaz gain, beraiekin ere egunero asko ikasten dela dio.**

Mexikora, dudarik gabe.

***-Mendia ala hiria nahiago?***
Betidanik mendian bizi ondoren, orain hirian egotea tokatzen zait. Ezin bat aukeratu!

***- Gustukoen duzun mendia?***
Familiaren zati bat Arrazolakoa izanda, Anboto zalantzarik gabe.

***- Zein gauza eraman behar dira motxilan?***
Argazki kamera, jateko zeozer eta denbora asko.

***- Irakurtzea, zinea, musika… zein nahiago?***
Irakurtzea, zinea oso garestia baita.

***-Gomendatuko zenukeen libururik?***
Irati Jimenezen "*Nora ez dakizun hori*".

***- Jateko…***
Legatz albardatua.

***- Bertute bat?***
Oso pertsona aktiboa izatea, zeozer egin behar horrek ez asetzea.

***- Akats bat?***
Batzuk baditut.

***- Zer aldatuko zenuke munduan?***
Gauza asko, sistematik hasita. Gizarte hobeago bat lortu beharko genuke.

***- Zerk eragiten dizu barrea?***
Mugikorretatik bidaltzen dituzten argazki muntaia umoretsu horiek.

***- Zer miresten duzu pertsona batengan?***
Besteei entzuten dakien pertsona izatea, asko baloratzen dut hori.

***-Zer gorroto duzu pertsona batengan?***
Jarrera matxista edo arrazistak izatea. Gaur egungo gizartean horiek ez dute tokirik.

***- Berriro jaioko bazina?***
Eguzki asko dagoen toki batean jaiotzea gustatuko litzaidake, Andaluzian esaterako, kar kar.

Paul Bustindui

Komunitateak
San Pelayo
Aholkularitza juridikoa
Tel. /Fax. 943 17 15 65 / 943 17 25 04
San Pelaio 6-A (Eroski gainean) 46 P.K. - Ermua


PUB YOMY
Zubiaurre kalearen bihotzean

egolek
electrizitatea iluminazioa
M. de Valdespina 14 · ERMUA
943 17 00 61 · egolek@hotmail.com

June Hernandez, futbol atezaina:

# “Futbolean lagun berri ugari ezagutu ditut”

**Familiatik datorkio kirolari sena June Hernandezi. Eskolako taldean ibili ostean, futbolean jarraitzeko Eibarko taldera joan behar izan zen. Hiru urte daramatza Eibarren hamalau urteko gazte ermuarrak eta Realarekin jokatu izan ditu txapelketak.**



***-Kirolarekin duzun erlazio estua familiatik datorkizu.***

Bai, guztioi gustatzen zaigu kirola egitea etxean. Nire nebak triatloia egiten du eta 13 urte dituzten umeak futbolean entrenatzen ditu, gurasoek ibiltzea atsegin dute eta nik futbolean jokatzen dut.

***-Eta futbolarekiko pasioa ere, txikitatik?***

Askotan Eibarrera joaten naiz partidak ikustera ekipokoekin, koadrilakoek eskubaloian egiten dute eta futbola gustuko duen bakarra naiz.

***-Noiz hasi zinen futbolean jokatzen?***

7 urterekin eskubaloian hasi nintzen. Futbola gehiago gustatzen zitzaidala ikusita, mutilekin ikastolako ekipoan sartzea erabaki nuen. 3 urte pasatuta Ermuan nesken talderik ez zegoenez, eta ezin nuenez mutilekin jokatu, Eibarrera joan nintzen, bertan nesken taldea zegoelako. Atezainik ez geneukan partidu batean, entrenatzaileak ni ipini ninduen. Niri ez zitzaidanez axola, atezain modura jokatu nuen eta orain postu horretan jarraitzen dut.

***-Entrenatzaile eta taldekide berriak ezagutuko zenituen urte hauetan?***

Beti izan ditut entrenatzaile onak eta beti izan dut harreman ona beraiekin. Taldekideei dagokienez, hiru urte daramatzagu elkarrekin futbolean jokatzen eta oso erlazio ona daukagu. Oso gustura nago egia esan.

***-Eibarretik, Realerako jauzia. Nola iritsi zen une hori?***

Iaz torneo baterako taldeko biri deitu ziguten eta hiru entrenamendu egin genituen. Gero, txapelketa batean aritu ginen Tolosan. Realak ez du oraindik talde finkorik eta txapelketetan parte hartzeko deialdiak egiten ditu Gipuzkoako taldeetako jokalariekin. Bertan exijentzia maila altuagoa da, baina zonaldeko neska onenekin aritzea positiboa da.

***-Euskal Selekzioan ere ibili zara. Nolakoa izan da esperientzia?***

Esperientzia ikaragarria izan zen hura. 4 entrenamendu egin ostean Espainiako txapelketara joan ginen, Tarragonara. Bertan, bost partidu jokatu genituen, hiru irabaziz eta bi galduz. Ez nituen bertako neskak ezagutzen eta momentu hartatik aurrera oso erlazio ona daukagu.

Amaia Arginzoniz













# Ermuko gazteria



Iiart Redondo

Jende askorentzat, jai egunak antolatzeaz arduratzen den lagun taldea da Ermuko Gazte Asanblada, baina egiten duena hori baino konplexuagoa da. Gazteriari alternatibak eskaintzen dizkion tresna baino gehiago da, esango nuke askorentzat inflexio puntua izan dela. Esate baterako, euskara eta euskal kultura sustatzeko lanean dihardu asanbladak, herri erdaldun batean euskaraz bizitzeko aukera emanez, hain zuzen. Baita gazteen arteko harremanak sortzen eta sendotzen ere.

Gainera hainbat aukera eskaintzen du aisialdiari eta norbanakoaren formazioari dagokionez. Azkenaldian jende gutxi ari da hau guztia mugitzen eta gazte gutxiren artean gauzatzen dira ekimenak. Bada denbora gazte askorengan parte hartzeko kultura faltan botatzen hasia naizela. Non dago arau hegemonikoa zalantzan jartzen duen gazteria? Datorrenarekin konformatzen ez den gazteria, herri indar eraldatzailean sinesten duena?

Zerbait aldatu nahi bada kritikotasuna beharrezkoa da, eta horretarako Ermuko gazteriak anbizio handiagoa izan behar du. Instituzioek ez badigute horretarako aukerarik ematen, herritarroi dagokigu proiektu eta ideia ezberdinak sortzea, saretzean oinarritutako herri mugimenduaren filosofian baitago giltza.

Gaur egun, gazte asko ekintza konkretu batean parte hartzeko prest agertzen da. Ez, ordea astero biltzeko. Eredu horrek herri mugimendu guztietan hartu du indarra. Garrantzitsua da jende horrek egin duen apustua. Nahiz eta ekintza puntualetarako izan, herriaren parte hartzea ziurtatuta dugu. Hala ere, eredu berri horren inguruan hausnartzea ezinbestekoa iruditzen zait. Nahikoa al da gustatzen ez zaigun hori aldatzeko?

Guztiok gauza bera egingo bagenu? Argi dago antolaketa eta lana beharrezkoak direla eta batzuek ardura hori hartzen jarraitu beharko dutela. Bukatzeko, esango dut indarra eta garra sumatzen dudala batzuengan, ideia eta proiektu berritzaileak dituen jende asko dugu gure artean eta horiek gauzatzeko dagoen ilusioa izugarria da.

Ezinbestekoa iruditzen zait gazteriak konfiantza hori berreskuratzea eta parte hartzearen kultura berpiztea. Instituzioetan, sortzear dagoen Gazte Kontseiluaren bitartez, nahiz herrian arituz. Guk baino ez dakigulako zer nahi dugun, eta nola nahi dugun.

> “Antolaketa eta lana beharrezkoak dira eta batzuek ardura hori hartzen jarraitu beharko dute”

Kopi-Fax
FOTOKOPIAK
KOLOREZKO FOTOKOPIAK
HANDIPENAK - TXIKIPENAK
PLANOAK - AZALEZTAPENAK
FAX PUBLIKOA
INPRIMAKETAK KAMISETATAN
Komentukua, 6 behea 48260 ERMUA TEL. / FAX 943 17 42 89

uriarte asesores
Aholkularitza fiskala eta lege aholkularitza
Komentukoa 3 behea · Tel. 943 179 040 · Faxa 943 179 197
48260 · Ermua · Bizkaia

solozabal tabakoak
torrekua 1
tel./fax: 943 17 07 33

optika itze
✓ Entzumenaren dohaineko kontrolak
✓ Audifonoetan azkenengo teknologia
Probaleku, 7 Tfnoa. 943 17 46 51

## SALGAI

42 metro karratuko mobil-homea salgai. Bañareseko kanpinean dago (Errioxa, Santo Domingo de la Calzadatik 2,5kmra). Teilatu bikoitza. Hiru logela, egongela, sukaldea eta komuna, dutxa eta bidearekin. Aire egokitua. 30 metro karratuko portxea toldoarekin. Prezio negoziagarria. ✆ 943031477 (gauean, 20:00etatik 22:00etara).



Maiatzaren 30ean
Zorionak Leire zure seigarren urtebetetzean. Muxu bat familia osoaren partez. Maite zaitugu!



Maiatzaren 28an
Zorionak Naroa eta ondo pasatu zure 5. urtebetetzean. Muxu bat etxeko guztien partez.

Iragarkia edo zorion-agurra kaleratzeko, bidali mezua:
**drogeten@gmail.com**

Azken eguna:
**Ekainaren 9a**.



Maiatzaren 16an
Zorionak Lier zure 2. urtebetetzean. Maite zaitugu!



Ekainaren 9an
Zorionak Yham Franco. Munduko hoberena opa dizugu. Asko maite zaitugu.

arral97.com
arral
Telf.: 943 17 60 75
banatzaile ofiziala
- Luis Cañas familia - Pazo Señorans - Txakoli Akarregi
- Añada Real - Vicente Gandía - Milana
- Yllera taldea - Oriol Rossell - La Loca Juana
- Gomez Cruzado - Astobiza txakolina - nítida
arral@arral97.com - Pol. Ind. Goitondo Goikoa Parcela Pab. 1 - Mallabia

IZASKUN TXURRUKA
Goienkale 9 Bajo
48260 Ermua Bizkaia
94 317 66 90
peluqueriaizaskun@gmail.com
peluqueriaizaskun.wordpress.com

TORREKUA
Pintxo eta kazolatxoak
Torrekua kalea 2 - Ermua
943 17 69 29

## MALLABIA
# 1947



Argazki honetan Geriako Aurtein baserriko Zabala-Ibaibarriaga familia agertzen da baserri aurrean. Eibarko Indalecio Ojanguren argazkilariak atera zuen argazkia.

Bertan agertzen dira:
Maria Ibaibarriaga Zabala,
Matea Zabala Idoeta,
Jose Ibaibarriaga Olañeta,
Josefa Ibaibarriaga Zabala,
Carmen Ibaibarriaga Zabala,
Jose Mari Ibaibarriaga Zabala
eta Martin Ibaibarriaga Zabala.

## ERMUA
# 1952



Zubiaurretik plazara bitarteko errekaren gaineko pasua, zubi eta arku batez osatua. “Prohibido echar basura al río bajo multa de 100 ptas.” dio Churchillen, Eloi Izagirreren tailarraren leiho ondoan zintzilikatutako kartelak. Plantxak egiten zituzten bertan eta materialarekin zetozen kamioiak, gaur egunekoak baino txikiagoak izan arren, arkua pasatzen estu ibiltzen ziren.

Eskuman Udaletxea: beheko leihoetan udal Alhondiga eta goikoan bulegoa. Arkutik begiratuta, frontoia; haren kontra, Aldapakua baserrian amaitu eta beroni izena ematen zion aldatza, gerora eskailerak bihurtutakoa. Argazkian, besteak beste, Juanita Urreta, Bitxori Ibaibarriaga, Casilda Ezkurdia…

Enter
INFORMÁTICA
SALMENTAK / IRAKASKUNTZA / ZERBITZU TEKNIKOA
VI Centenario 19, behea
Tel. 943 17 90 37
e-maila: enter-i@arrakis.es

Pub SCORPIO
Zubiaurre, 21
ERMUA

Proba-Leku
Ileapaindegia - Estetika
Probaleku 3, 1A
Tel. 943 17 05 42

**Urteetan Ermuko hainbat plazetan egin dituzte kontzertuak eta bestelako musika emanaldiak. Aurten, lehenengo aldiz Vertigo Rock ekitaldia Betiondon egin da eta hurrengo musika emanaldiak ere bertan egingo dira.**

**- Musika emanaldiak Betiondora eramatea ideia ona da?**
**- Bertara hurbilduko zara?**
**-Etorkizuneko ekitaldiei eragin liezaioke?**



Ez dakit zer dela eta eraman dituzten kontzertuak herritik Betiondora. Galiziar letren egunean Orbe kardinalaren plazan berbena bat egon zen gauean. Bestalde, Okinzurin barrakak jartzen dituzte egun osoan. Honek musika ekitaldiei ez die mesederik egiten, eta herriko ostalariei ere ez.

**Josu Carracedo, 22 urte**



Ermura orain dela bost hilabete iritsi nintzen eta oraindik ez dut herria oso ongi ezagutzen. Ez naiz Betiondon egon, baina asko igo behar dela badakit, eta hau arazo bat izan daiteke. Herriko plazan egin beharko lirateke ekitaldi hauek, honela erdiguneko giroa hobetuko zen ere.

**Aurelia Florina, 29 urte**



Oso ideia ona iruditzen zait niri. Lekua askoz handiagoa da plazakoarekin alderatuz, eta jende gehiago hurbilduko da. Gainera, nahi beste ordu egon daitezke bertan inor molestatu gabe eta nahi adina zarata egiten Betiondon.

**Oier Retolaza, 26 urte**



Vertigo Rock ekitaldian laguntzen dut, eta hainbat aspektu daude. Alde batetik herriko erdigunean egiteak bertara datozenei erreztasun bat ematen die. Beste alde batetik, Betiondon egitean gehiago luzatu daiteke. Merkatari batzuen babesa galdu daiteke.

**Malen Eizagirre, 21 urte**



## MUSIKA

**Hilak 3:**
Abesbatzen kontzertua: Berriotxoa (Elorrio) eta Pispillu (Ermua). 20:15ean. Santiago elizan.

**Hilak 3:**
Folk kontzertua: Auramúsica taldea. 22:00etan. Ermua Antzokian. Sarrera dohainik.

**Hilaren 12tik 14ra:**
Kontzertuak: Alboka musika eskolako ikasleak. 19:00etan. Lobiano kultur gunean.

**Hilak 16:**
Kontzertua: Alboka musika eskolako ikasleak (Alboka eguna). 22:00etan. Ermua Antzokian. Sarrera dohainik.

## ERAKUSKETAK

**Hilaren 1etik 15era:**
Margoa: Mugartea taldearen lanak. Lobiano Kultur Gunean. 18:00etatik 20:00etara.

**Hilaren 19tik 30ra:**
Margoa: Udal Margo Eskolako ikasleen lanak. Lobiano Kultur Gunean. Lanegunetan 18:00etatik 20:00etara eta asteburuetan 12:00etatik 14:00etara.

## DANTZA

**Hilak 10:**
Txindurri eguna: dantza erakustaldia + erromeria + larraindantza. 19:00etatik. Orbe kardenalaren plazan.




## UMEENTZAKO EKITALDIAK

**Hilak 2, 9, 16 eta 23:**
Haurrentzako jolasak: Barixakuetan. 17:30ean. Orbe kardenalaren plazan.

**Hilak 25:**
haurrentzako antzerkia: "El principito", Sutegi gazteak taldearen eskutik. 17:00etan. Ermua Antzokian. Sarrera dohainik.

## BESTELAKOAK

**Hilak 2:**
Ikastolaren eguna: hainbat ekitaldi egun osoaren zehar. Anaitasuna Ikastolan.

**Hilak 3:**
Gaztela Mantxako 25. urteurrena: hainbat ekitaldi. 11etatik. Gaztela-La Mantxako Kultur zentroan.

**Hilak 3:**
Herri Muga Athletic Elkartearen 25. urteurrena. Hainbat ekitaldi egun osoan zehar. Orbe kardenalaren plazan.

**Hilaren 12tik 18ra:**
Gastronomiari buruzko jardunaldiak: hainbat ekitaldi.

**Hilak 17:**
Gau irekia: hainbat ekitaldi gau osoan zehar. 22:00etatik. Herriko hainbat tokitan.

**Hilak 18:**
Kale margo lehiaketa. 9:00etatik.

**Hilaren 23:**
San Juan sua: hainbat ekitaldi. Orbe kardenalaren plazan.

**Hilak 24:**
Eskolabarriren 25. urteurrena: hainbat ekitaldi egun osoaren zehar. Orbe kardenalaren plazan.

**Hilak 24:**
El Rozioko erromeria. Betiondoko aparkalekuan. 11:00etatik.

Patxi López

TXINDURRI TALDEA
Tokian tokiko

PRO arraindegia

ITSASKIAK
ARRAIN FRESKOAK
ETA IZOZTUAK
Zubiaurre, 21
943 17 16 96
ERMUA

Infreñu Taberna
Kardenal Orbe plaza
943 174584
www.infretaberna.com


ALBOKA MUSIKA ESKOLA
- Akordeoia
- Biolina
- Biolontxeloa
- Bonbardinoa
- Flauta
- Kantua
- Gitarra
- Gitarra elektrikoa
- Gitarra baxua
- Lengoaia musikala
- Klarinetea
- Panderoa
- Perkusioa
- Pianoa
- Saxofoia
- Trikitrixa
- Tronboia
- Tronpeta
- Txistua

Tel. 943 17 12 98 / 943 17 18 00 • albokamusikaeskola@hotmail.com

Meka
Lanbide Eskola

# Formakuntza Eskaintza 2017-2018

**Aurrematrikula ekainak 5etik 16ra**

Fp Euskadi Lanbide Heziketa

EUSKO JAURLARITZA · GOBIERNO VASCO



**ERDI MAILA**

- Administrazio kudeaketa
- Makineriaren elektromekanika
- Ibilgailuen elektromekanika
- Mendekotasun-egoeran dauden pertsonei arreta
- Soldadura eta galdaragintza
- Erizaintzaren laguntza
- Karrozeria

**Eta eskaintza partzialean, arratsaldez...**
- Erizaintzaren laguntza
- Soldadura eta galdaragintza

**GOI MAILA**

- Administrazio eta finantzak
- Automozioa
- Haur-hezkuntza
- Metal eraikuntzak

**Eta eskaintza partzialean, arratsaldez...**
- Automozioa
- Gizarteratzea

**Informa zaitez: www.meka-elgoibar.net - 943 74 80 19 - bulegoa@meka-elgoibar.eus**




aek
euskara praktikoa

**EUSKALTEGIAK**

IKASTARO TRINKOAK
Ikasi euskara etxetik gertu
Azterketak prestatzeko
ON-LINE IKASTAROAK ERE BAI!

**2 ASTEKO BARNETEGIAK**

EUSKARA ESKOLAK
EUSKARAZ BIZITZEKO
AZTERKETAK PRESTATZEKO

**FAMILIA BARNETEGIAK**

EUSKARA IKASTEKO
SEME-ALABEKIN EUSKARAZ ARITZEKO

**BARNETEGI IBILTARIAK**

OINEZ ZEIN BIZIKLETAZ
MINTZAPRAKTIKA EGITEKO

673 200 100 · 946 464 000
www.aek.eus

# KALTXANGO AEK EUSKALTEGIA

**UZTAILA / IRAILA**
**Ekainaren 26tik uztailaren 21era**
**Irailaren 4tik 29ra**
**4 ordukoak. Goizez zein arratsaldez**
**B1, B2 eta C1 mailako azterketak prestatzeko ikastaroak**
**Euskara hobetzeko ikastaroa (hobekuntza)**
**B1 :** Azterketak euskaltegian

**B2/C1 Maila**
**Matrikula-aldia:** irailaren 15etik 26ra
**Entzumeneko eta irakurmeneko probak:** Urrian
**Idazmeneko probak:** Urrian
**Mintzameneko probak:** Azaroan

**Diruz lagunduak**

Bizkaia etorbidea 13, behea · 943 17 19 40 **kaltxango@aek.eus**
Euskaltegi homologatua